

Bat falta

Euskaldunon Egunkaria, 1991-02-05: 2.

Zakilixut mutil argi eta serioa da.

Kartetan jolasten ere ikasi du.

Bere azken agerraldietako batean ederki adierazi du, jakinduriaz gain, adimen zorrotza duela; musean hiru txanka, xota, ez da nahiko lau erregetakoan jokora irabazteko, hiru txankarekin ez bait da joko izatera ere iristen!

Jokoa izatera iristeko, 30etik gora behar dira, hiru figura, esate baterako, eta laugarren bat. Eta jokorik onena, jokora hordago bat lasai irabazteko, 31 behar.

"Zakilixut"ek hori esaten du: jokoa irabazteko *batekoa falta dela*.

Eta honela jartzen du jokoan HB.

Jaurlearitzako hiru alderdiak, gehi HB. *Hogeitamaika*.

Noski, eta eskutik bada, hobe!

Nik, neuk, alderdi guztiak errespetatzen ditut, eta Herri Batasuna ere bai, noski; gure artean baitut gure herrian izan duen bere ibilbide makur guztia, eta askoren eraginaz, gaur duen jite gogor eta jasangaitza.

Urrundik datorren haria denez, alderdi guztiak tira dugu hortik, eta berak ere tira dute.

Baina laburki Herri Batasunaz ari garenez, esan behar da gehien eta gogorren exijitzen duenak ez duela beti arrazoi, eta musean jolasteko ere lege minimo batzuk behar direla jarrai.

"Zakilixut"ek ere jakin behar luke hau.

Hara EGUNKARIA eredu gisa.